

INGENIARITZA MEKANIKOA IKUSPUNTU PRAKTIKO BATETIK

- **Jakintza adarra:** Ingeniaritza eta Arkitektura
- **Campus:** Gipuzkoa
- **Ikastegi antolatzailea:** Gipuzkoako Ingeniaritza Eskola (Donostia)
- **Gradua/k:**
Ingeniaritza Mekanikoa
- **Garapen-lekua (helbidea):** Gipuzkoako Ingeniaritza Eskola, Plaza Europa, 1. Donostia

1. JARDUERAREN DESKRIBAPEN LABURRA

Ohartu gara Batxilergoko ikasleek eta Goi Mailako Heziketa Zikloetako ikasleek (Ingeniaritza Mekanikako Graduko ikasleak izan daitezkeenez, alegia) ez dutela ezagutzen zertan datzan titulu hau.

Horregatik, beharrezkoa da, lehenik eta behin, Ingeniaritza Mekanikako Graduko titulua eta ingeniariaren lanbidearen zeregina eta interesa argitzea eta ezagutaraztea ikasleei

Proposatzen diren laborategi praktika hauetan Gipuzkoako Ingeniaritza Eskolan egunero erabiltzen ditugun tresnekin lan egin ahal izango dute ikasleek.

2. LANDUKO DIREN GAIK/EDUKIAK

Ingeniaritza Mekanikako Graduko tituluarekin zerikusia duten praktikak, batez ere, Ekoizpen eta Fabrikazio sistemen inguruan. Ingeniaritza Mekanikako laborategietan praktikak. Fabrikazio Aurreratuari eta Errendimendu Handiko Mekanizazioari arreta berezia ipiniko da. Ikasleei problemak ebazteko eta erabakiak hartzeko eskatuko zaizkie, Mekanizazio lantegi batean egongo balira bezala.

3. EGINGO DIREN EKINTZAK

- I) Harrera eta taldeen antolaketa
Laborategietan egingo diren praktikak aurkeztuko zaizkie.
- II) Laborategiak ezagutzeko bisita
Titulazioko laborategiak ezagutuko dira, eta han egiten diren ekintzak adibide praktikoen bitartez azalduko dira.
- III) Inkesta
Inkesta pasako zaie.

4. EGUTEGIA ETA PLAZAK

Data	Hizkuntza	Txanda	Ordutegia	Plazak
2024-05-28	Gaztelania	Goizez	10:00-11:15	30
2024-05-28	Euskara	Goizez	12:00-13:15	30